



azkoitiko ama birjinaren jasokundearen parrokia



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Euskadi
Atsegin handiz

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATUETZA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO
C/IA TURISMO S/ALA

A



ntzinako Baldako parrokia -egungo hilerria- lekuz aldatu zenean, San Sebastianen eliza eta erietxe zaharra kokatuak zeuden lurretan eraiki zen Parrokia berria. Lehenengo planoak 1522. urte aldera eginak zituzten Juan Arteaga, Pedro Lizarazu eta Pedro Alcega arkitektoek, Pedro Echabururen laguntzarekin.

XVIII. mendean hartu zuen gure tenpluak gaur egun duen itxurra monumentala. Dorrea, eliza ataria eta sarrera, sakristia berria eta Apaiz etxea egin ziren, laurak ere estilo barroko garbienean, hurbilean ziren Loiolako Santutegiaren obren eraginpean. Azpimarratu behar dugu gaur egungo kanpandorrea lehenengo erlaitzetik gora Raimundo Alberdi eta Joaquin Irizarrek egindako diseinuan oinarritua dagoela eta 1947an eraiki zela, aurrekoa tximista batek eraitsi baitzuen 1943an.

1988 – 1989. urteetan, hezetasun arazoak konpontzeko eta egokitze lanak burutzeko, Parrokiaren azalera osoko zorua altxatu zen, enterramendu ugari aurkitu zirelarik bertan, Goiz Erdi Arotik aurrera Gipuzkoako elizetan zeharo errotutako ohitura zen moduan. Azkoitiko familia ezberdinen 310 hilobi baino gehiago agertu ziren, parrokiako atzealdeko zoruko seinaleek adierazten duten bezala. Hilobi hauen testigantza San Martingo Ermitan kontserbatzen da, bertan, Historiaurrea eta Azkoitiko eta Euskal Herriko kristautasunaren historiari buruzko museoa lekutzen delarik.

Andre Mariaren jasokundearen parrokia 1992an inauguratu zen berriro, bere edertasun guztian, Azkoitiko herritar guztien partaidetzarekin egin zen zaharberritze lan luze eta delikatuaren ondoren.

erretaulak

a Jasokundeko Ama Birjinaren Erretaula

Francisco Bautista, Madrilgo Jesusen Lagundiko Ikastetxe inperialeko diseinatzaileak, moldatu eta Antonio Alloitiz Bilboko Begoñako Amabirginaren basilikako erretaularen autoreak bukatua 1660tik aurrera. 1905ean, suteak egituren zati batzuk erre ondoren, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiaren moldatzailea izan zen Francisco Urkola arkitektoaren zuzendaritzapean eraberritu egin zen.

Irudi-bilduma: Hamabi Apostolu, Juan Bataiatzailea, San José, Santa Ana, San Joaquin, lau Eliz-Irakasle eta Andre Maria bere jasokundean. Sagrarioaren alde banatara XVII. Mendeko, Coloniako Birjinei dagozkien bi erlikitegi ikus ditzakegu.

b Santokristoa eta San Joseren Erretaula

Erretaula barrokoak dira, mahats-mulko eta mahatsondo azpinduriko zutabe salomoniko bereziak agertuz. XVII. mendekoak dira.

Antzina Errosarioko Andre Mariaren erretaula zegoen lekuan San Josérena dago; honek aurrekoaren aztarnak izanik oraindik ere. 1840 inguruan, egungo hutsunean jarri zuten San Joséren irudia; horretarako Ama Birjinak betetzen zuen gelatxo hormatu egin zuten.



Santokristoaren erretaulan XVI. Mendeko kalbarioa dago, berau Antxietaren ikasleren baten lana izanik, Juanes de Iriarterena beharbada.


Irudi-bilduma: José eta Mariaren ezkontza, Santa Rosa de Lima, Santo Domingo de Guzmán eta San José. Santokristoren aldarean, berriz: Kristo Zigortua eta Kalbarioa daude.

c Juan Bataiatzailearen Erretaula

Sevillako Eskolako poliptikoa, Pedro Villagas eta Juan Bautista Vázquez el Viejori esleitua, XVI. Mendeko bigarren erdian Juan Pérez de Recalderen sendiak eraikia. XVIII eta XIX. mendeetan berritu egin zen.

Irudi-bilduma: lehenengo oinean, San Lorenzo, Juan Bataiatzailearen irudia eta San Marcos daude. Bigarrenean, San Pedro, Artzainen Gurtza eta San Antonio. Hirugarrenean, San Martín bere kapa eskaintzen, Ama Birjinaren koroatzea eta Santa Katalina. Eta azken oinean kalbarioa.





d **San Ignacio eta San Pedroren Erretaulak**

Barrokoaren lehen belaunaldiko lanak dira. 1630 inguruan Miguel de Goroak egin zituen. 1685 inguruan Diego de Mugarrieta elgoibartarrak margotu zituen hamalau oholak; goiko oihalak, berriz, Nicolás de Brustin-ek. XIX. mendean, San Pelayoren irudia gehitu zitzaion.

Irudi-bilduma

1- San Pedroren aldarea: ezkerrean San Antonio, San Blas eta Santa Lucía. Eskubian, San Miguel, San Gabriel eta Santa Barbara. Erdian San Pelayo, San Pedroren irudia eta Animak.

2- San Ignacioren aldarea: ezkerrean Aingeru Guardakoa, San Rafael eta Santa Catalina. Eskubian San Francisco de Sales, San Pedro de Arbues eta Santa Magdalena. Erdian San Joaquín, Santa Ana eta Amabirjina, San Ignacioren irudia eta San Francisco de Javier.

e **San Franciscoren Erretaula**

Olano eta Idiakez sendiarena izan zen, berauen ondorengoak egungo Loiola Jaun- Andereak direlarik. XVIII. Mendeko Barroko-Rokoko estiloa, oso konposaketa eta eskultura onak ditu. San Francisco de Asís-i eskainia. Bere irudi bilduma San Francisco de Borja, San Ignacio de Loiola eta San Francisco de Javier Jesuita Santuekin osatzen da. Santa Teresa, San Luis Gonzaga eta San Estanislaoen erliebeak ere badaude bertan. Aldameneko nitxoetan San Roque eta San Antonio de Padua.



f **Errosarioko Andre Mariaren Erretaula**

Hementxe kokatua izan zen aurrez, Juanes de Antxieta eskultore haundiak 1575. urtean Pedro Zuazola, Carlos I Enperadorearen idazkariaren familiarentzat egindako erretaula bikaina. Loiolako etxearekin lotura zuen familia honek XVII mendean Loiolako Santutegia eraikitzea ahalbidetu zuen. Aldare eder hau desagertzean, Hurtado de Mendoza sendiak gaur egungo Gotiko berri multzo ederra egiteko agindu zuen. Erdian dagoen Ama Birjinaren irudia, Francisco Font zizelkariarena, beste batzuen artean Urretxuko Iparrairreren oroitzarria egin zuen berarena da.

Irudi-bilduma: Jesusen Bihotz Sakratua, Santa Catalina, Santo Domingo eta Errosarioko Andre Maria. Albotan, San Esteban eta Pilareko Andre Maria.

organoa

Parrokia honetako bitxi paregabea dugu hau. 1898an eginikoa, Ferdinand Price-k armonizatu zuen eta Fernand de la Tombelle-k estreinaturiko azken Cavaillé-Colletariko bat da. Aristide Cavaillé-Coll egilea bizi zela egindako azkenetakoa. Bere heriotza baino urtebete lehenago, bere sinadura Mutin etxeari eman zion. Genero honetan munduan, bere benetako 40 jokurekin. Agustin Azpiazuk klasikoko kaxa batean altxatua eta koruaren alde batean kokatua. Bananduta dagoen kotsolan 56 notako eskuzko hiru teklatuak eta 30eko pedalierra daude. Transmisioa Organo Nagusiarentzat, Barker makina bakarrarekin, mekanikoa da.



